

BALENDIN ENBEITA

BERTSOPAPER-LEHIAKETA

12. EDIZIOA

BERTSO SORTA SARITUAK

Mendipe baten dago
Uspitxa Jauregi,
nere txikitxutako
jolasen lantegi.
Pozik egingo neukez
idazten urte bi,
zenbat maite zaitudan
azaldu banegi!

Balendin Enbeita

Edmund Shee

Doinua: *Errege Jabokoren su etenetik*

1-Bi urte mila zazpiehun
garrengoa argitzeko
Dublin tristea hautatu
zuen amak erditzeko
Shee-tarren leinu zaharrear
gurutze bat bi iltzeko
soineko beltz banarekin
ahaide hil bakoitzeko
errege protestantea
irrikitan gu hiltzeko
itsasontziratu ginen
ama, ni eta izeko
etxetik aldendu behar
gu izaten jarraitzeko.

2-Ekaitz beltzen olatuek
dantzatu zuten bidaia
itsas-argi zelatari
naufragoen atalaia
mendi berdez hornitu zen
goiz argi batez paisaia
gure amak esan zuen:
-zein ederra den Bizkaia!
Portugaletetik gora
nora zoaz zu, ibaia?
Bilbo bihurtu genuen
antzar basatien² kaia
errege protestanterik
gabeko Dublin alaia.

3-Nire gaztaroko Bilbon
merkataritza zen funtsa
bale ehiza, artilea
flandriarren diru-kutxa
Utrecht-eko hitzarmena
izan zen infernu hutsa
bale ehiza amaitu zen
galdu genuen dirutza
Raney eta Etxabetar
Ana, hura aurkikuntza!
krisi une horietan
nik behar nuen laguntza
berak irakatsi zidan
euskal bihotzen hizkuntza.

4-Anarekin egun pasa
kostara abiatzean
Getxon Arrigunagako
itsas-labarren ertzean
txoko kuttuna genuen
Armendiako haitzean
haraino igo nahi nuen
sorterriaz oroitzean
mendebal haize bortitza
Serantesen okotsean
olatuak harroturik
Abasotan lehertzean
begiak itxi beharrik
gabe nengoen etxean.

1 XXI. mendean "ETAren su etenetik" izena izango duen doinua. Xabier Silveirak plazaratua.

2 *Wild geese* edo *Antzar basatiak* deitu zitzaaien historikoki 1691. urtetik aurrera, erlijio jazarpenagatik, Irlandatik Europako herri katolikoetara ihes egin zuten milaka gazteei. <http://thewildgeese.irish/page/the-wild-geese-history>.

XII. BALENDIN ENBEITA BERTSOPAPER LEHIAKETA

5-Mila zazpiehun ta hogeita
hirugarrenak ospea
urte sikua izan zen
okerragoa ostea
urteetako lehorte
baten lehen aratostea
errotak eho ezinik
gosekil gudalostea
odoluste bilakatu
aurretik odolostea
ez zen nahikoa guztia
zeruari egoztea
eta erabaki nuen
liburu bat erostea.

7-Zubiaga-Etxebarri
etxezoek zer aurpegi...
Lur sail kaxkar harekiko
nuen interes larregi.
Azpira hutsik zeukaten
beti zelako ateri
nik txanponak erakutsi
nizkien beren-beregi.
Orduan elkarrizketa
bihurtu zen erromeri
eskriturak sinatuta
alde egin nuen azeri
2000 erreal eta martxan
25 maravedi

9-Lehortea amaitu zen
izan zen triste xamarra
Murphy jaio gabe ere
legea bete beharra
burlazar deitzen zidaten
On Quixote irlandarra
Zubiaga-Etxebarri
etxeleen irrifarra...
Ez bait naiz protestantea
eskaini nien bizkarra
maitasunez begiratzuz
nire Aixerrrotatzarra
abentura hunkigarri
bezain negozio txarra.

6-On Quixote Manchakoa
Cervantesen abegi on
liburu ederra zela
Anari aditu nion
orriak igaro ahala
irudimena zerion
Aixerrota erraldoiak!
-ia ba Santxok zer dion.
Liburua itxi nuen.
Zer ideia, zer zorion!
-Euririk gabe irina
laster izango da Bilbon!
Aixerrota eraikiko
dut gainera badakit non!

8-Armendiako haitzean
kudeaketa ardura
dorre biribilerako
zutarriaren lilura
Jatako errotarria
haritz sendoenen zura
hiru-lau hilabetetan
eman genion itxura.
Inauguraziorako
ekitaldi otordura
agertu zirenei sarri
etortzen zaie burura
jartzean zeruan
entzundako trumoi hura.

Puntu beltzak

Doinua: *Sagutxo Batzuekin*

1

Garagardo epelak
eta zopa hotzak,
bazkaldu eta ezin
garbitzea hortzak,
ahoa odoletan
uzten duten zotzak,
auto ilarak eta
plastikozko poltsak,
eta biltzen ez diren
zakurren gorotzak.

3

Pusketadun jogurtak
eta esnegaina,
kafeak erretzea
zeharo mingaina,
koloniaren eta
lakaren usaina,
alkoholemia kontrol
batean Ertzaina,
podiumetan alferrik
galtzea txanpaina.

5

Makilajea eta
takoidun zapatak,
traje eleganteak
loredun gorbatak,
uniformez jantzita
dauden azafatak,
ia ogia soilik
daukaten bokatak,
mendaterik gabeko
Tourreko etapak.

2

Politiko lapurrak
apaizen dotrina,
gezurra, mehatsua
usoen zirina,
barraskiloak eta
belarriko mina,
anbizioa eta
zapaltzeko grina,
komunera joan eta
libratu ezina.

4

Gerrak kanoiak eta
indar militarra,
saldu beharra eta
erosi beharra,
jai dudan egunean
eguraldi txarra,
goxotasun gabeko
pertsonek zakarra,
maltzuraren barrea
haurraren negarra.

6

Belarria sutzera
datorren mozkorra,
txingorra masailean
kroasant lehorra,
patata izoztuak
azukre koxkorra,
ondo berotu gabe
dagoen txistorra,
txistulariak eta
asiar liztorra.

XII. BALENDIN ENBEITA BERTSOPAPER LEHIAKETA

7

Inon lekurik eza
eta ez-lekuak
merkatal gune handi
zein aireportuak
pertsiana jaitsiak
zein herri mortuak,
irria galdu duten
mutur idortuak,
baserri hutsak eta
hildako ortuak.

9

Alarde, danborrada
uniforme festa,
euskal dantzen saioak
reggae eta ska,
lantegiak itxita
gazteak iheska,
elizako ezkontzak
Ertzainen protesta,
beldurrez ibiltzea
horrenbeste neska.

11

Aspaldian nenbilan
haserre aurpegiz,
ia beti serio
gutxitxotan irriz,
Gustuko ez ditudan
kontuak jo begiz,
eta eskutan duzun
sortara ekarriz,
bizipoza nigana
itzuli da berriz.

8

Edonorenganako
miresmen itsua,
jator plantan datorren
moja amultsua,
denaz gehitxo dakien
lagun berritsua,
“zein guapa zauden” dion
senide faltsua,
bandera oro eta
txorixo urtsua.

10

Elizako bataio
jaunartze, hileta,
ogi gogorra eta
lentejak erreta,
idi-probak, antzarrak
eta zezenketa,
entzierroak eta
ahari-topeka,
hainbeste bat-bateko
bertso txapelketa.

Gora baserritarrak

Doinua: *Iguzki denean*

1.- Eguzki denean
zein den eder itzala!
Tamalez ez gaitu
goxatzen lehen bezala;
pausaje makala,
umore petrala,
hezur ta azala,
pobreen jornala,
kezkak sortu ahala,
Jaunak babes gaitzala

2.- Nola euri-lanbro,
hala eguzki printza...
lurra jotzea ez
al zen nekazaritza?
Baldintzak baldintza
etekin murrirtza,
nekea da hitza;
ezpainetan bitsa,
begitarte hitza,
lur jota gu gabiltza!

3.- Garo-metak egin
ta malkarrak zelaitu,
goizean goiz hasi
ta gauean amaitu;
nahiz lanean a(r)itu
ta indarrak ahitu,
txin-txin noizko a(d)itu,
ez plater ez kaiku
aski ezin blaitu,
goseak jango gaitu.

4.- Oporrik ezean
alperrik dira planak,
oroitzapen larru
ta sexu-harremanak...
idiak etzanak,
gazteak izanak,
txakurrak otzanak,
ta oilasko danak
axeriak janak,
guk hiltzen ere lanak.

5.- Gaur peri eguna
eta han ere xextran,
euroko porruak
saldu ditut bi peztan!
Tomateak zestan
ezer ez ta pestan
lau aste herreskan;
andrea protestan
eroslerik eztan,
bigote onak ze(u)zkan!

6.- Erregateoan
betiko hiru prenda,
bezerorik gabe
geratu zait agenda.
Zerrendak zerrenda,
begietan benda
ez dugu jartzen ba!
Herrian sei denda,
guk bi (h)azienda,
garesti irteten da.

XII. BALENDIN ENBEITA BERTSOPAPER LEHIAKETA

7.- Jakin arren nola
ditudan meniskoak,
biloben bihotzak
zer dira harrizkoak?
"Zorroztu aiztoak!"
"Ez izan gaixtoak!"
Nolako ziskoak!
Game Boy ta kristoak,
ume zorriztoak,
beraiek bai listoak.

8.- Joan ziren urre
gorri eta zilarrak,
noiz arte iraungo
digu diru pixarrak?
Nahiz eta izarrak
estali iparrak,
zain gauzka biharrak...
Zabaldu bizkarrak
eta irriparrak,
gora baserritarrak!

Horrela askoz politago hago

Doinua: *“Norbere mundu intimo”*

1. Denborak idortutako
hautzaro baten kresala,
izan nintzena gordetzen
duten hamaika apala...
ganbararen ahanzturak
ferekatzen dit azala
oroitzapenez berotuz
behin hoztutako magala,
ta nahiz kaxa horietan
murgildu nire itzala,
itzalen artetik berak
atera nau berehala,
hauts artetik begira dut
irri egiten didala,
berriro zazpi urteko
haur hura banintz bezala.

2. Ahaztu nahiko nuke(e)na
ezin dut guztiz ahaztu,
oroitzapen gozo haien
zaporea da mikaztu,
nire beldur ezkaturik
handienak zaizkit laztu
eta aurre egiteko
indarrak, berriz, eskastu,
etsipenez, barne-minez
baino ezin dut arnastu,
hemen ni ere bihurtzen
ari ote naiz ba trastu?
Izan ere, nahiz nik bere
ile horiak orraztu,
ez dakit ez ote zuen
berak nirekin jolastu.

3. Distira horren azpian
ilun geratu den bisai,
eskotean ezkutatu
ezin diren bi lehergai,
karminez marraztutako
irrifar fin eta alai...
horren perfektua da non
ez den existitzeko gai.
Ohartu gabe bihurtu
zitzaidan laguna etsai,
beragatik ordainduak
neu jarri ninduen salgai,
epaitu ninduen hori
gaur ezin dezaket epai,
lehen ez nuen ikusten,
orain ez dut ikusi nahi.

4. Ertz batetik, ezkutuan,
berriz dizut errepara,
hor dago hautzaro oso
baten pausoen islada,
norabidez aldatzeko
ordua heldu zait jada,
ezin dut gehiago bizi
panpina baten gisara,
nigan hutsunea hazten
doa taupadaz taupada
zure perfekzio horren
bila nabilen erara,
nire borroka, zurea,
ezin daitezke konpara
zuga duzun koxka oro
kurbetan kamusten bada.

XII. BALENDIN ENBEITA BERTSOPAPER LEHIAKETA

5. Argala, ilehoria,
horren polita izatez...
Zergatik ez zinen jaio
azal ilunago batez?
Zergatik zinen modelo
eta kirolaria ez?
Zergatik sentitzen nintzen
zure alboan hain trakets?
Maiz zioten jakintsuek
hitz potoloz eta artez:
“Zoriontsu izateko
zugar sinesten has zaitez
ispilu aurreko hori
onartuaz eta maitez”,
baina zu maite zintudan
neure buruaren partez.

6. Barbie-ren mundu arrosa,
edertasuna, nibela,
mutilagun perfektua
eta armairu itzela,
dena diru, dena fama,
ezin zen izan bestela,
jaiotzetik zenuen zain
bizitzaren pasarela,
irribarrez begiratzen
zenidan, beti bezela,
sinetsaraziz ni bizi
nintekeela horrela,
ametsetan hasten nintzen
ta ahazten nuen bela
arrosak bere arantzak
eduki ditzakeela.

7. Zure moduko eredu
itsutuaz izaera
esan ziguten: “Neska ta
arrosa da gauza bera”,
ezin gara kanon baten
besoetatik atera,
original ta arraro
ei dira gauza berbera,
aldaken forma, jarrera,
irribarrea, janzkera...
Neska oro jaio ginen
paper bera antzeztera
ta honela heldu gara
une batetik bestera
panpinekin jolastetik
panpinatxo izatera.

8. Beste behin zuri begira
hor gelditu naiz luzaro,
baina_ez zaitut irribarrez,
pozik ikusten gehiago,
azala da zure muga
eta zu haren esklabo,
biok fabrika beretik
gatozelakoan nago,
baina badago mundu bat
perfekziotik harago,
“Hik balio dun aurpegi
polit bat baino gehiago,
nahas hitzan txima hoiak,
sentitu hadi arraro,
egia esan, horrela
askoz politago hago”.

Ni ere erortzen noa

Doinua: *Neska zaharrak eta apaizak I / Historiaren hari zahar horri*

1.-Nork apartu ta apartatu du
olatu baten kresala?
Nork jan du bere itzala?
Nork ikusi du ama negarrez
aita atzean daukala? (bis)
Gurea sarri bihurtu dute
deuseza eta hutsala.
Ta ni alaba makala,
harramazkatzen hasi zenetik
gure amaren azala,
aita, ni ere erortzen noa
domino fitxak bezala. (bis)

2.-Hitz bakar batek bihur lezake
maitasuna harrikada,
lehenagokoen gisara,
ta gorrotozko zeinu bakoitza
ezin ezkutuan laga. (bis)
Zein kontestutan lasaitzen zaitu?
Zeinetan sortzen zirrara?
Guretzat, behintzat, mina da.
Zer dela eta garamatzazu
horren bide hertsitara?
Zure buruak lotzen zaitu ta
gurekin askatzen zara. (bis)

3.-Horrelakoak pasatu behar
dituela hainbat sendik
sentitu dugu hemen bik,
besteok bere bezero eta
bera sentitzen omen VIP. (bis)
Gurpil berean gabiltza biok,
ta ezin irten hemendik
problema dator lehendik;
amaren negar saio bakoitza
igarotzean barrendik,
lehen nirekin egiten zuen
orain niri egiten dit. (bis)

4.-Egun bakoitza egiten zaio
disekaturiko orbain,
gogorra egiten zait hain
lagundu behar niokeela
pentsatzen dudala orain. (bis)
Lehen beregan zegoen dena,
orain, bestalde, bere gain,
zure akatsaren ordain.
Zenbat borroka, zenbat intziri,
zenbat beldur, zenbat irain...
benetan segi behar al dugu
noiz aldatuko zaren zain? (bis)

XII. BALENDIN ENBEITA BERTSOPAPER LEHIAKETA

5.-Ez dakit nahita edo nahi gabe,
ni ere nauzu egurtu,
haserrearazi, sutu.
Jada ezin dira gorde lehenago
adina gezur ezkutu. (bis)
Begietara begiratu ta,
gelditu zaitut, estutu,
isiltasuna inbutu.
“Zer aita? Aspaldi ohartu nintzen”
ta geratu zara mutu,
baina begitan igarri dizut:
ez zara inoiz damutu. (bis)

6.-Zaila izango da ateratzen
sartu didazun arantza,
badaukat nire zalantza
denborarekin ez al zoazen
zailtik ezinezkorantza. (bis)
Ez al zenuen aspaldi galdu
aldaketarako xantza.
Desorekan da balantza,
akaso ikus dezakezu ta
aldatu zaitezke, antza,
baina ama bat baino lehenago
galduko dut esperantza. (bis)

7.-Berriro ere ikusten zaitut
betiko giro lasaian,
igoenaren paisaian.
Baina kalera atera zara
eguneroko usaian. (bis)
Eguna zertan igaro duzun
pasa ondoren ezbaian,
-zu beti zure talaian-,
oraindik bronka jasotzen dugu
itzultzen zaren garaian;
baina biharko arropa ohean
eta afaria mahaian. (bis)

8.-Harrokeriak harrokeria
ta kasu bakoitza kasu,
ze iradokizun antzu.
Zu zeure hortan zabilta baina
niretzat dena ez da su. (bis)
Eztanda egin dut ta nahiz orain
eraso egin indartsu.
Lehengo bera al zara zu?
Badauzkat mugak nik ere eta
sentitu ninteke baxu,
inoiz barkatu nahi ez badizut,
barkatuko al didazu! (bis)

9.-Bai amak, bai zuk, ta bai nik ere,
maiz pentsatu dugu iaio,
sufritzeko ginen jaio.
Inor ez doa inoren kontra.
Kontran gaude, ze arraio! (bis)
Akaso orain arte bezala
segiko duzu, soraio,
soka zaharraren karraio.
Zuk erabaki joan edo ez,
esan “kaixo!”, esan “aio!” ...
Batzutan esan nahi duenari
izaten utzi behar zaio. (bis)

Aio

Ezezagun maite

Doinua: *Amaren bularra, haurraren janari*

1- Astebururo legez
etorri natzaizu
ama ta aitarekin
egitera kasu
lehengo asteburutik
irrikaz naukazu
istorio gehiago
kontatuizkidazu

3- Ez zaitut ezagutzen
Aitona zer duzu?
kontu guzti honekin
beldurtua nauzu
magalean harturik
emaidazu muxu
orain arte bezala
besarka nazazu

5- Noizbait entzuna nuen
alzheimer kontua
baina bakarrik nuen
urruti aitua
ene Aitona ez da
hau zure patua
esnatu ezer ez da
oraindik galdua

7- Belarretan ikusiz
kilkerren antenak,
Benidorren inoizko
oporrik onenak
nonbait gorde dituzu
oroitzapen denak
zuloan galtzen dira
hoietan gehienak

2- Nondik etorri zara
neskatxa laztana?
ihes egin al duzu?
amak a ze lana
esan agure honi
non den zure ama
nik eramango zaitut
amatxorengana

4- Horko neskatxak nolaz
deitu nau Aitona?
mesedez ez dadila
gehiago asoma
buru barnean daukat
nahaste sakona
memoria ez daukat
lehen bezain ona

6- Pixkanaka hasi naiz
gauzak gogoratuz
nondik nora nabilen
badakit momentuz
neskatila ez egon
triste nire erruz
ni zoriontsua naiz
egunero sortuz

8- Nahiz orain argi izan
eskuin edo ezker
oroitutako dena
ahaztuko dut laster
nahiz 10 minutura
ez oroitu ezer
maite zaitut laztana
eta mila esker

LAU LETRATXO

Doinua: Martxa baten lehen notak. Mikel Laboa

Lau letratxo elkarren ondoan:
akronimoa da, brabo!
Eta atzean bertso-eskola bat...
parkatu, askoz gehiago!
A, L, B eta ondoan E,
ALBE lez ezagunago,
bertsozale bik sortu zutena,
gaur baino askoz lehenago.
Laurogeian sortu zuten eta,
ez ote dugu arraro
hainbeste urtez jardun izana
bertsogintzaren abaro?
Sekretutxo bat badauka, baina,
irauteak aroz aro,
ALBEn ahotsak ugari dira,
bihotza bakarra dago!



www.albe.eus